

Koronabirusak eragindako itxialdiari aurre egiteko, DYAk laguntza sare propioa antolatu du



Koronabirusak eragindako itxialdiari aurre egiteko, DYAk laguntza sare propioa antolatu du. 24 orduko zerbitzua dauka martxan. Horrela izanik, edozein unetan deitu daiteke 943 46 46 22 zenbakira eta norberak duen behararen berri eman. Hortik aurrera, DYAko boluntario sarea arduratuko da behar horri erantzuna emateaz, beharrezko diren neurriak hartuta beti ere.

DYA: *“Usurbilgo herri sarearekin ez gaude koordinatuta. Sare hori, oker ez bagaude, Udalaren bidez ari da antolatzen. Gu momentuz ez gaude sare horrekin harremanetan, beharrik sortu ez delako momentuz, baina gure errekursoak herriaren eskura jarriak daude, edozertarako. DYAren proiektua, bere sorreratik, “Gelditu eta Lagundu” lelopean mugitu da. Eta orain lelo hori apur bat aldatu egin dugu eta Gelditu eta Lagunduko dizugu deitu diogu. Orain arte bezala, edozertarako gaude; erostekak egin eta etxera eramateko, botikak helarazteko, egunkaria eramateko, berriketaldi bat izateko telefonoz bakardadean daudenekin, informazioa emateko, zalantzak argitzeke... Edozertarako!”*

#GeldituEtaLagundukoDizugu

Gauzak errazteko, DYA Gipuzkoak eskura jarri ditu beharrezkoak diren errekursoak eta pertsonak, ongi prestatutako eta koordinatutako boluntarioak, ahalik eta hobekien lagundu ahal izateko premiazkoak eta oinarritzkoak diren behar horiekin.

Laguntza behar duenari Gizarte Segurantzako txartela eta NANA hartuko diote eta behar duen medikazioa etxera eraman, elikagaiak helarazi edo bestelako gestioak* egiten lagundu, arriskutsua izan daitekeena. Arrisku horiek guztiak ekiditea da DYA Gipuzkoaren helburua.

Laguntza jasotzeko 943 46 46 22 telefonora deitu behar da. Zerbitzua egunero eta edozein ordutan dago martxan.

* Osasun arloko gaien eskumena Osakidetzaarena da. Ulertzekoa den moduan DYAren errekurso guztiak Osakidetza eskainiak daude eta hauek hala eskatuz gero berehala jarriko dira zerbitzuan.

Informazio gehiago

- [dyagipuzkoa.com \(https://www.dyagipuzkoa.com/ev/geldituetalagundukodizugu/\)](https://www.dyagipuzkoa.com/ev/geldituetalagundukodizugu/)
- [twitter.com/DYAGipuzkoa \(https://twitter.com/DYAGipuzkoa\)](https://twitter.com/DYAGipuzkoa)
- [facebook.com/dya.gipuzkoa \(https://www.facebook.com/dya.gipuzkoa/\)](https://www.facebook.com/dya.gipuzkoa/)

#GeldituEtaLagundukoDizugu

Kaixo herritarrok,

DYA Gipuzkoan 46 urte daramatzagu Gelditu eta Laguntzen baina oraingo honetan lelo hori aldatu eta egokitu egin nahi dugu egungo egoerara eta zuri eskatu nahi dizugu gelditzeko, arriskuan dagoen herritarra zarelako, #Gelditu, #Geldituetxean eta gu arduratuko gara zuri laguntzeaz.

Gauzak errazteko, DYA Gipuzkoak eskura jarriko dizkizu beharrezko diren errekursoak eta pertsonak, ongi prestatutako eta koordinatutako boluntarioak, ahalik eta hobekien lagundu ahal izateko premiazkoak eta oinarizkoak diren behar horiekin.

Zure Gizarte Segurantzako txartela eta NANA hartu genitzake eta behar duzun medikazioa etxera eraman, elikagaiak helarazi edo bestelako gestioak* egiten lagundu, zuretzat arriskutsua izan daitekeena. Arrisku horiek guztiak ekiditea nahi dugu.

Gisa honetako beharrik baldin badezu eta etxean egon zaitezten lagun bagenezake, deitu **943 46 46 22** zenbakira, eguneko edozein ordutan.

Denon artean, eta beti ere osasun arloko agintarien jarraibideei kasu eginez, egoera honi aurre egitea lortuko dugu.

DYA beti egongo da zuri laguntzeko.

* Osasun arloko gaien eskumena Osakidetza da. Ulertzekoa den moduan gure errekurso guztiak Osakidetza eskainiak daude eta hauek hala eskatuz gero berehala jarriko dira zerbitzuan.

DYA 943
GIPUZKOA **46 46 22**

www.DYAgipuzkoa.com

Published by usurbileginez

[usurbileginez\(r\)en bidalketa guztiak ikusi](#)

Posted on [2020/03/23](#) 2020/03/23 by [usurbileginez](#) Posted in [Orokorra](#)

Related

Koronabirusak sortutako egoeraren aurrean, Zubietako Herri batzarrak elkarlaguntza sarea antolatu du Zubietan In "Orokorra"

Gaur arratsaldean Donostiako manifestazioan batuko den dirua SARE mugimenduarentzat izango In "Orokorra"

Koronabirusa dela-eta, Usurbilgo Aitzaga Elkarteak atek itxia ditu In "Orokorra"

This site uses Akismet to reduce spam. [Learn how your comment data is processed.](#)

[Blog at WordPress.com.](#)